



# Baleike

Zumaiako herri aldizkaria. 23. zenb. 1996ko apirila. 100 pzta.



## San Telmotarantz saltaka

**Ze berri?**

Eskubaloi  
taldeek kirol  
portuaren  
propaganda

**Erreportaia**

Nire drogak,  
zure drogak...  
Zumaiako  
drogak

**Ze berri?**

Larrialditako  
zerbitzuaren  
aldeko  
ekimena

Zumaiako Fototekak  
utzitako argazkia




**GARAI BATEKO PLAIEROAK**

*Duela 33 urte inguruko argazkia da oraingo hau. Itzurun hondartzan MARIACHIS (marradunak) eta TXIMISTA taldeek jokatu zuten elkarren aurka, eta Mariachis nagusitu zen 5 eta 1. Protagonistak hauek dituzue:*  
**ZUTIK** (ezkerretik hasita): Agustin Iturain, Xanti Orena, Felix Azkue, Angel Aperribai (+, hila), Luis Mari Yeregi (+), Garbiñe Goikoetxea (madrina), Satur Garate, Antonio Romatet (+), Jose Domingo Mendizabal (+) eta Joxe Aizpurua.  
**MAKURTUTA** (ezkerretik hasita): Juan Mari Zearreta, Juanito Berastegi, Xalbador Agirrezabalaga, Felix Aizpurua, Jesus Mari Irureta, Jabier Sasiain eta Jose Ignacio Serna (+).

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



**kutxa fundazioa**  
**fundación kutxa**

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



**CAJA LABORAL**  
**EUSKADIKO KUTXA**

Argitaratzailea



Zumaiako Udalak diruz  
lagunduriko aldizkaria



**BALEIKE  
HERRI ALDIZKARIA**

Foronda kultur etxea

tfnoa: 86 10 56

faxa: 861742

argitaratzailea  
**ZUMAIAKO  
GAZTE  
BATZORDEA**

Ian taldea

Iratxe Aizpurua

Esther Martinez

Eneko Dorronsoro

Xabier Azkue

Igor Uranga

Josu Waliño

Gorka Zabaleta

Juan Luis Romatet

Kolaboratzaileak

GEG., Natur taldea,

Miriam Romatet, Aintzane eta

konpainia, Kepa Aizpurua,

Imanol Manterola, Itxaso

Urruzumo, Txomin,

Dani Carballo, Josu Egaña eta

Arantxa Eizagirre, Ainhoa,

Luis Mari Aizpurua, e.a.

publizitatea

861056 tlf.

inprimategia

Gertu Koop. E.

(Zubillaga - Oñati)

tjrada: **850** ale

Lege gordailua: SS-405/94

BALEIKEk ez du bere  
gain hartzen aldizkarian  
adierazitako  
esanen eta iritzien  
erantzukizunik.

Festak

**San Telmoak  
berehala**

**datoz .... 14. orr.**



Kirolak  
**Kroseko  
argazki eta  
sailkapenak**

....22. orria



Elkarrizketa

**Josefran**

**Ispizua. 11 orr.**

**Proposamen pare bat**

San Telmoak gainean izanda, badakit ez dela batere orijinala lerro hauek horri buruz idazteko erabiltzea, zaila baita zerbait berria esatea. Baina oraingoan, proposamen bat luzatzeko erabili nahi dut aukera hau.

Urtean behin egiten dugun bezala arrantzalez mozorrotu baino lehen, emaiozue zeuen buruei astindu txiki bat eta saia zaitetze San Telmoen izateko arrazoia bilatzen. Parrandarako aitzakia baino ez dira, edo, aldiz, gure iraganaren zati bat gordetzen dute?

Hementze doakizue nire proposamena: San Telmoak arrantzaleen festak direnez, izan ditzagun hauek gogoan, eta egin diezaiegun omenalditxo bat urtero. *Aita Mari eguna* izenda dezakegu, edo nahi duzuen bezala, baina izan ditzagun gogoan beraiek baitira festen izateko arrazoia. Eta bide batez; Abelin Linazisorok komentaturiko beste proposamen bat luzatuko dizuet: *Zahagi dantza* (Saliño) berreskuratzea. *Zahagi dantza* San Telmo egunari lotuta dago eta polita litzateke berreskuratzea. Gainera, herrian dantza talde bat izanda, ez da batere zaila izango. Gauza hauek galtzen badira, San Telmoek ere izateko arrazoia galduko dute. Besterik ez.

**Gorka  
Zabaleta**



**PREMIAZKO  
TELEFONOAK:**

Kultur Etxea .....	86 10 56	Ludoteka.....	14 32 64
Polikiroldegia.....	86 20 21	Tren geltokia.....	86 11 27
Gurutze gorria.....	86 10 93	Taxi geltokia.....	86 13 60
Udaletxea.....	86 02 50	Bake epaitegia.....	86 00 67
Gizarte Zerbitzuak.....	86 22 00	Posta.....	86 15 00
Osasun zentrua.....	86 08 62	Udaltzaingoa.....	86 18 70
San Juan Egoitza.....	86 12 73	Pilotalekua.....	86 2172
Pentsiodunen Egoitza....	86 17 00	Larrialdi zerbitzua.....	46 11 11
Musika eskola.....	86 11 83	Informazio sexuala.....	32 04 44

# Alkate jauna:

Ion Albizu

Lehenik eta behin zinez eskertu nahi dizut, herritar batek egoki egiten dizkizun galderak erantzuten saiatzea. Atsotitzen liburuko XXVI kapituluan esaten denez, «ez iezaiozu ergelari bere beharren arabera erantzun, bere pareko bihur ez zaitez». Honekin ez nuke ergela deitzen zaitudala pentsarazterik nahi; adierazi nahi dizut ez dudala datu bonbardaketa batekin erantzuteko asmorik, eta honen arrazoia honakoa da: ez dut bat bera ere. Artikulua berriro irakurtzen baduzu (eklektikoki, ezer pertsonaltzat hartu gabe), ikusiko duzu bere ardatza udal politikari buruzko informazio eskaera dela. Ez dut zure borondate ona zalantzan jartzen, jabetzen bainaiz udal ihardueratan inbertitzen dela dirua eta ez zarela udaleko diruarekin etxean «Monopoly» jokoan aritzen. Baina herritar batek esaten badizu bere inpresioaren arabera udaleko kirol instalakuntzak ez daudela herritarren beharren mailan, lehenik eta behin egin behar zenukeena informazioa ematea da, herritar horrek alor horri dirua eskaintzen zaion ala ez ziurtasun osoa izan dezan, inpresioaren orde. Ikusten duzunez arazoa informazioan dago. Nik ez dut inola ere kirol materiala ordaindu behar zenukeela baieztatzen, soilik Udalak kirolari zuzendutako laguntzaz galdegiten dut. Onartzen dut, hala ere, nire mintzamen arazoa izan daitekeela, edo itzulpenarena (ez dut uste) edota okerreko interpretazioarena.

Kultur etxeari buruz, pertzepzio arazoa dela esango dizut. Oraindik ere liburu kopurua eta bibliografiaren kalitatea oso oso urriak direla iruditzen zait. Gustuen eta pertsonaren arabera kontua da, baina orain artean ez nekien herri honetan liburutan zenbat inbertitzen zen, eta horren ardura zeuri dagokizu. Ulertu beharko duzu, noski, norbaitek zenbait galdera egin eta Udalak egiten duenaz eta ez duenaz informatuko lukeen hileroko

argitalpen bat eskatzea. Alkate jauna: herritar baten galdera inozenteak jasatearen kontu hau zure soldataren barnean sartzen da. Baina beharbada gehiegi kobratzen duzula interpretatuko duzu; ba ez, ez aritu katuari sei hanka bilatzen eta testuari atxiki zaitetz. Zure erantzunean ikusten dudana ez da alkateak herritar bati egindako erantzuna. Etsaiak edonon ikusten dituen alkatea sumatzen dut eta dena *konfabulazio judeo-masonikoa* balitz bezala interpretatzen duena. Zergatik aipatzen dizkidazu *gaupasak*, tabernak, eta abar? Baina pastelaren ginda HBri buruzkoa da; zer zerikusi dut nik HBrekin? Ez naiz HBko militantea, eta ez dut koalizio honetako inorekin politikaz hitz egin. Baina *nirekin ez bazaude, nire aurka zaude*. Saharari buruzkoa ez naiz ari 4, 5 edo 100 joan ote ziren galdetzen, gutuna berriro irakurtzen baduzu ikusiko duzu Sahararekiko zer nolako laguntza ekonomikoa dugun bakarrik galdetzen dudala. Gainontzekoa zure irudimenetik sortua da, eta nik ez dut horren erantzukizunik. Gutun guztia herritar batek egindako galderei erantzuten ez dien Oda bat da. Bestalde, galderei erantzuten saiatu izanak pozten nau, baina nire xedea eta militantzia politikoa kolokan jartzen dira; gainera, gutunak adierazi nahi du nire udal informazio ezaren arrazoia ez dela Udalaren arazoa, neurea baizik, estatu

mailako egunkariak irakurtzen ditudalako. Ez da arazo pertsonal, erotiko-festiboa edo Freudarra, informazio arazoa baizik.

Baina zure erantzunean ikusten dudanez badago arima mindu dizun zerbait, eta zure artikulu guztian zehar hegan dabil eulitzar baten gisa: Udalaren demokratizazioa. Hau «demokrazia» hitzaren kontzeptu arazoa da. Udal gobernuaren legitimotasuna ez dut inoiz ere zikindu. Demokratizazioa aipatzen dudanean, zentzu demokratikoaz ari naiz; hau da, «kaletik instituzioetara eta instituzioetatik kalera» joan behar da. Zu zara, noski, hauteskundeetan herritarren konfidantza gehien bildu duena, hori ez dut zalantzan jartzen. Esan nahi dudana da iruditzen zaidala informaziorik ez egotean, herria ez dela Udalak egiten duenaz jabetzen (gauza positiboak edo ez hain positiboak, norberaren arabera). Baina hauteskunde bezperan buzoneatzen da Zumaian, bai, amaitzera doan legealdian Udalean egin dena azalduz. Agian ez naiz zuzen ibiliko, baina iruditzen zait talde eta elkarte ezberdinekin hartu-eman oso gutxi dagoela eta herritarrei informazio gutxi eskaintzen zaiela. Uste dut, baita ere, zuri dagokizula horren erantzukizuna, eta ez duzu ezer pertsonaltzat hartu behar. Honi buruz luze hitz egin genezake, demokrazia ez baita aldizkako hauteskunde batzuekin konpontzen den kontua, eta herritarren partehartze publikoa lortzeko ahaleginak egin behar dira. Demokraziaren kontzeptua aldatu egin da Periklesen garaitik eta beti ere ahalegin berezi bat egin behar da herritarrek udalean eta beste instituzioetan parte har dezaten. Nola? Hori zure esku uzten dut, zeu baitzara demokratikoki hautatu den alkatea. Baina aholkutzat atsotitz asiari hau aipatuko dizut: «Jainkoak bi belarri eta aho bakarrarekin egin gintuen, hain zuzen ere gehiago entzun eta gutxiago hitz egin ahal izateko».

Adeitasunez.

## OHARRA:

ZUEN GUTUN EDOTA  
ARTIKULUAK GEHIENEZ ERE  
ORRIALDE BATEKOAK IZATEA  
ESKATZEN DIZUEGU, ERRAZAGO  
ARGITARA DITZAGUN.



HARAGITEGIKO, 15-1. TEL: 86 21 16

**kukutz**  
PUBLIZITATEA-SERIGRAFIA



- ★KAMISETAK
- ★KAPELAK
- ★TXISKEROAK
- ★TXANDALAK
- ★PAPELEZKO POLTSAK

Baltasa Etxabe 7 Tfnoa: 860569



**Amertze**

Erribera kalea 6  
Tel / faxa: 861707

**EZ ZAITEZ HARRITU, RIKARDO!**

Joan den hileko alean agertu zen «Alkatearen erantzun irekia» artikulua harira dator nire idatzi hau. Ez nuen nik Rikardo Peña eta Ion Albizuren arteko diferentzietan parte hartzeko asmorik. Horregatik, udal gestioaz Rikardok egiten zuen azalpen luze eta baikorra irakurri ondoren, ados egon ez arren, eta justifikaziorik gabeko soldata justifikatu nahian zebilela pentsatu arren, ez zitzaidan ezer esatea bururatu.


Nirekin ez zihoala uste nuen. Horregatik, Rikardok Baleikeri zuzendutako «loreak» irakurtzean, aldekoa ez duena aurkakotzat hartu eta, beste behin ere HBren ikurraz estigmatizatu nahian somatu banuen ere, ez nuen erantzutea pentsatu.

Alkatearen erantzuna desproporzionatua iruditu arren --ez baita normala hiritar baten kritikaren aurrean, urtean 800 milioi erabiliz lau urtean egindakoa azaltzea--, ez nindoan ni ezer plazaratzera.

Baina, udaletxea dela eta, «iharduera honetan ez dago sekretismorik» irakurtzean edo, harriduraz, Rikardo Peñak «zer dela eta esaten du Ionek udaletxea demokratizatu behar dugula?» zioela ikusteak, asalduetuegin ninduen. Gauza batzuetara ez naiz ohitzen, alkate honen gauza batzuetara --gezurra lasai esateari kasu-- ez naiz inolaz ere ohitzen; horregatik sentitu nuen erantzun beharra.

Udal gestioaz eztabaidatzean, behin baino gehiagotan entzun dut «historiak esango du nork duen

**GUTUNAK**



**Atal honetan zumaiarren ohar, iritzi, keza guztiak bildu nahi genituzke.**

**Idatzi beldurrik gabe, NA zenbakia ahaztu gabe, eta utzi ezazu Forondan edota Joxe Manuelen kabinan.**

arrazoia» delakoa, eta seguruenik hala beharko du izan hainbat gaitan, ez ordea guztietan. Jadanik badakigu Rikardo Peñaren ezaugarriek, alkate karguan, ez dutela zerikusirik udal gestioa demokratizatu eta gardenago egitearekin.

Rikardo Peñaren «ohorea» da, orain arteko alkate guztien jarrera aldatuz, Gobernu Batzordeko bileretatik kanpo uztea oposizioko zinegotziak. Arrazoiak? Alkatearen esanetan oposiziokoak gustokoak ez izateaz gain, legeak hori egiteko adina ahalmen ematen diola alkateari, eta, oposizioa ez egonda, lasaiago hitz egin dezaketela udal gobernukideen artean. Aurreko legealdian, oposizioa bertan zela, ez omen zuen desio duen lasaitasun hori. Nola bada aipa dezake inork sekretismoa? Sekretismoa non?, galdetzen du harriduta alkateak.

Autoritate hori bera erabiliz, Oikirako arduradun izendatu zuen Jexux Alkorta kargutik kendu zuen Rikardo Peñak iazko legealdian. Izan ere, ez zitzaion batere gustatu EAJk onartu ez zuen Senideak-en mozio

baten alde bozkatzeari Jexuxek. Beraz, ipini bezala kendu, beti ere lege barruan eta demokraziaren arauak betez, noski.

Adibideak adibide, Rikardo Peñaren gaur arteko gestioaren ezaugarriak ez dira sekulan demokratizazioa eta gardentasuna izango. Egiarekin aritu izana izango ez den bezalaxe. Ez dira horiek alkateak aukeratu dituen jarrerak. Horregatik egin zait gogorra berak harriduraz «zer dela eta ez da demokratikoa udaletxe hau» galdetzea. Horregatik, alkatearen harridurarako lekuri ez dagoelako, aurkitu naiz erantzun beharrean.

**Migel Aperribai.  
HBko zinegotzia.**



**DEMOKRAZIA**

Alkateak Baleiken argitaratutako gutunaren inguruan ohar txiki bat egin nahi nuke.

“Demokraziari dagokiona gehiengoaren nahia onartzea da” esaldiaren aurrean, “demokrazia” hitzaren esanahia argitu beharra dagoela iruditzen zait.

“Demos” (=herria) eta “krazia” (=governua) hitzek osatzen dute termino famatua, beraz herriaren governua da hitz horren esanahia eta hala azaltzen da hiztegi guztietan: “herriak soberania duen erregimen politikoa” edo “herriak gobernuan parte hartzearen aldeko dotrina politikoa”.

**Ismael Manterola Ispizua**

**BELARDENDA  
SIWA**



Esther Blanco  
OSTEOPATA-MASAJISTA  
Basadi 5-C behea  
Tlf: 143404 - 860012

**Huntza, o.k.**



DISEINUA  
MANTENUA  
ERABERRITZEA  
ZUHAITZ, ZUHAIKKA  
ETA FRUITONDOEN  
KIMAKETA

lorazaintza S. Jose, 8-d Tlf: 143079



**Habana**  
auto  
Mekanika eta  
karrozeria

Axular ibiltokia, 14 86 00 70  
Zumaia

# Eskubaloia eta kirol portua

Urte asko dira Zumaian eskubaloi taldea sortu zela, duela gutxi 25. urteurrena bete da, eta epe luze honetan kontaezina da talde honetatik pasa den zumaiar kopurua, dela jokalaria moduan, dela direktibo edo laguntzaile moduan.

Ordutik hona eskubaloi taldea elkarbizitza gune eredugarria izan da taldea bere bizitza guztian, eskubaloia aldeko eta, bereziki, kirolean gazteak hezitzearen aldeko konpromezua izan da hainbeste urtean mantendu den batasunaren eta neutraltasunaren giltzarria.

Baina guzti hori momentu honetan apurtzeko zorian dago. Ez da gauza berria maila honetako edozein kirol iharduerak laguntza ekonomikoa behar duela irauan ahal

## Alex Oliden Antia

izateko. Zumaian, zorionez, kirola asko egiten da eta beste kirolean diharduen hainbat talde egonda, oso zaila da laguntzaile pribatuak bilatzea; beraz, beti jo izan dira Udaletxeko atearak laguntza bila, eta baita Udalak eman ere nahiz eta sekula izan ez duintasunez funtzionatzeko adina.

Azken urtean, laguntza baremoak aldatu direla eta, dirudienez are gutxiago tokatu izan zaio eskubaloi taldeari, eta honela, aurreko urteetatik arrastaka datorren defizita kontutan hartuz, oso kinka larrian gelditu da eskubaloia etorkizuna Zumaian, desagerketa ere baztertzea ez dagoelarik.

Hau ikusita, berriro Udaletxera joan dira ate joka gure direktiboak eta hauxe erantzun zaie: laguntza gehiago ematerik ez dagoela aurrekontu arazoak direla medio, baina kirol portua bultzatzeko sortu den erakundeak beharbada laguntza emateko interesa izan dezakeela.

Besterik ezean, eta alkateak hala esanda, azkenean ate hori jo beharrean aurkitu da eskubaloi taldea eta badirudi negoziazioak burutzear daudela.

Gauza jakina da kirol portuaren arazoak Zumaia zatituta daukala, eta beharbada laguntza hori ematearen arazoia proiektu horrek herrian duen legitimazio faltari buelta eman nahi izatea izan daiteke, nire ustez oso prezedente larria ezarritz.

Beraz, gutuna sinatzen duen honek, eskubaloi taldeak urtetan mantendu duen batasun eta neutraltasun hori apurtuta geldituko litzatekeela uste du kirol portuaren aldeko propaganda eginez gero, eta publikoki azaldu nahi du horren aurkako postura.

Nire uste apalean borondate pixka batez konpondu daitezke Zumaiaiko ondare diren kirol talde guztien eta, bereziki, eskubaloi taldearen arazo ekonomikoak, horrelako txantaietan erori beharrik izan gabe. ■



## ZUMAI A



### AUTO -ESKOLA



- \* Gida-baimen guztiak ateratzeko baimendua
- \* Praktika eta azterketak Azpeitian
- \* GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea

☎ 861018

20750 ZUMAI A



**inportaturiko erropa  
eta artisautza**

Basadi 3 Zumaia

## Txitxarrofik Bakailaura

IGOR ETXABE



Duela urte gutxi batzuk, asteburuero Txitxarora joan ohi nintzen, kontzertu areto ona zelako. Asteburu askotan gozatu egiten genuen atzerriko eta ez hain atzerriko taldeen aktuazioekin, adibidez: Dr. Feelgood, Elliot Murphy, The Nomads, Sonic Youth, Godfathers, eta abar luze batekin.

Seguruena talde guzti hauek onak ziren (eta dira) aretoentzat, baina ez errentagarriak. Pena da, baina hala da. Beraien birak beste ibilbide batzuetatik joango dira. Gaur egun areto honetan honelako jendeak aktuatzen du: D.J. Ramon, D.J. Luis eta bertako D.J.-k. Orduak eta orduak ematen dituzte txunda, txunda, eta hau da errentagarritasuna. Lastima jendeak hain gustoko izatea, neri giza alderdia gehiago gustatzen zitzaidan, jendea jotzen eta horrelakoak... Baina ez dela errentagarria!!



## Eguzkiya



Joxe Mari Manterola

Gure jainkuak dohai ederrak asko daduzka munduan hoietako bat eguzkiya da preziso behar genduan lehengo gau baten esnatu eta gauz hori neukan buruan orain ez dakit ametsarekin parterik izango duan.

Gure etxeko sailetan negon pendiztxo baten onduan San Juan egunez goguan daukat nundikan erten zenduan une haretan pentsamendua sortu zan nere buruan beste gauza bat beharragorik ba ote dago munduan?

Berrogeitamar urte igaro eta oraindik daukat goguan pare-parian agertu ziñan Larraspuruko soruan zuri begira gelditu nitzan txoritxo baten moduan orduan ere gaur bezelaxe zure beharra genduan.

Orain esango dedan hau ere sartu zitzaidan goguan artean mutiko nitzalarikan ardiak zaintzen nenguan igande baten hotza zan eta gero epeldu zenduan aurrera ere jarraitu zazu orain arteko moduan.



ZORUEN KUTXILAKETA ETA BARNIZAKETA.  
PARKETA JARTZEA.

Estazioko 12 Tel.: 861412

Antonio Etxabe  
Gizonezkoen erropak



Zunbillo 4  
Tlf: 861407



ROSI  
GARBIKETAK

- Etxeak eta dendak
- Enpresa eta auzo lanak
- Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi 3-A  
Tlf. 861670



# Larrialditako zerbitzuaren alde

Sinadura bilketak eta bilera bat baino gehiago egin dira zerbitzu hau eskatzeko

**O**xford aretoan egin zen lehen bileran 200 lagun inguru bildu ziren, eta herritarren kezak eta iritzia bildu ondoren, sinadura bilketa bati ekin eta udalarekin harremanetan jartzea erabaki zen.

Batzorde bat eratu da larrialditako zerbitzua Zumaian bertan egon dadin borrokatzeko. Martxoaren 17an sinadurak biltzen hasi eta egun bakar batean ia 2.000 lortu zituzten. Ikusten denez, herrian kezka handia sortu duen kontua dugu honako hau.

Batzorde honek Osakidetza salatzen du, bera delako egoera honen arduradun nagusia. Aia, Orio, Zarautz, Getaria, Zumaia, Zestoa eta Aizarnazabalerako bi sendagile bakarrik daude, bat Zarautzen egoten dena eta bestea batera eta bestera mugitzen dena (Gurutze Gorrikoa).

Martxoaren 21ean batzorde honetako kideek bilera bat izan zuten udaletxean Osakidetzako eta udaleko ordezkariekin, eta bertan bere eskakizunak azaldu zizkieten.

Udal ordezkarien esanetan helburu hau lortzeko indarrak batu behar dira, eta eskualdeko udalekin hitz egiteko konpromezua hartu zuten. Bestalde, Udalak oraingo zerbitzuari buruzko kezak bildu nahi ditu, gero Osakidetzari aurkezteko. Osakidetzakoek zerbitzua nahiko osatuta



Batzordekoak Forondan biltzen dira astelehenero, arratsaldeko 7etan.

dagoela adierazi zuten, baina herritarren jarrera ikusita, azterketa berri bat egin ondoren, maiatzaren hasieran beste bilera egiteko prest agertu ziren.

## Bitartean zer?

Azken 3 urte hauetan Udalak jarritako zerbitzuarekin gaizki ohitu garelako dirudi. Osakidetzari zerbitzu hau herrian koka dadin eskatzeko, adostasuna erabatekoa da. Baina karkoa galdera honetan dago: bitartean Udalak lehen jarritako zerbitzua berriro jarri behar al luke?

Urtean 5 milioi inguru kostatzen den arren, batzordekoen iritziz hala egin behar litzateke. Alderdi politikoei, ordea, ez zaie iruditzen zerbitzua udaletxeak ordaindu behar lukeenik,

hori zerbitzu bera bi aldiz ordaintzea bailitzateke.


Batzordekideekin egindako bilera batean Montse Aranak (PNV) esan zuenez "Udalaren zerbitzua probisionala izan zen, eta Osakidetzarena berritu zenean bestea kentzea erabaki zen". Marina Bidasorearen ustez (EA) "Aldaketa bortitzegia izan da, eta alderdien arteko adostasuna behar da Osakidetzakoekin hitz egiteko". Azkenik, Imanol Garatek (HB) esan zuenez "Aurreko zerbitzua (Udalarena) azkarregi jarri zen, beste bidea agortu baino lehen. Ondo ikusten degu herritarren ekimena, txalogarria da, baina ez gaude ados udaletxeak zerbitzu hau ordaintzearekin". ■

MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160  
ZUMAIA



# NIKOL-ENE

taberna

Amaiako plaza Tfnoa. 861440



# Eskubaloi taldeek kirol portuaren propaganda egingo dute

**D**atorren denboralditik aurrera Pulpo eskubaloi taldekoek Kirol Portua bultzatzen duen promotoraren babes ekonomikoa izango dute. Erabakia ez omen da erreza izan, baina zuzendaritzakoek ez zuten beste aukerarik ikusten.

Azkenaldian izan dituzten galerak ikusita, talde honetako ordezkariak udaletxera jo zuten, laguntza eske. Diru gehiago ezin zutela eman izan zen udal ordezkarien erantzuna, baina patrozinadoreari buruz ari zirela, agian promotora prest egongo litzatekeela komentatu zieten Pulpokoei.

Lehenengo urteko direktiba eta aurtengoa bildu eta bide hau jorratzea erabaki zuten. Kirol portuaren promotorak duen bulegora jo zuten

eta dagoeneko sinatu dute hurrengo denboraldirako akordioa.

Abel Yeregi Pulpo eskubaloi taldeko presidentearekin hitz egin dugu gai honi buruz. Erabaki honek sor ditzakeen istiluetan pentsatu al duten galdetzean zera erantzun digu: *"Bai, honetan ere pentsatu degu. Baina gauza bat garbi dago, eskubaloiak Zumaian bizirik jarraitzeko ez daukagu beste aukerarik. Zuloa haunditu eta ekipoak kentzen hasi beharko genuke"*. Bere hitzetan, gustora hartuko luke bestelako patrozinadore edo babeslea, baina bila eta bila ibili ondoren ez omen dute topatu.

Zenbait entrenatzaile eta jokalarik erabaki honekiko ezadostasuna agertu dute. ■



Hurrengo denboraldian bestelako propaganda izango dute kamixetetan.

## laburrak

### OZTOPO ARKITEKTONIKOAK

Herritar talde batek idatzi bat aurkeztu du udaletxean, zenbait lekutan dauden oztopo arkitektonikoak salatzen. Adibidez Parrokiara edota Arritokieta-hilerri aldera joateko traba ugari daude elbarrituentzat, eta udalari herrian dauden oztopo guzti hauek kentzea eskatzen zaio.

### PATXI ARISTI 9 HILABETE ISOLATUTA

Amnistiaren Aldeko Batzordeak salatu dutenez, Patxi Aristi preso politiko zumaiarrak 9 hilabete daramatza ia erabateko isolamenduan.

Oso baldintza kaxkarretan dago Carabanchelgo espetxean: bixitak (senitartekoak bakarrik), patio orduak, eskutitzak, liburuak, denak oso mugatuta ditu.

### ESKERRAK EMANEZ

Udalak eskerrak eman nahi dizkio Itzurun Gimnasia Erritmiko taldeari, desagertzeko pausoak eman ondoren, bere ondarea (150.000 ppta) udal kirol eta kultur batzordeari eman diolako.

**IZETA**  
orristegia



Urumea 6  
Tlf: 862083

**IRIBAR**  
OKINDEGIA - KAFETEGIA  
Tlf: 143361



Gosarrietan prezio bereziak

**Paki**   
Belardenda


OSASUN NATURALA  
Erribera kalea 2, Tlf: 143156 - 86 22 44

# Bi eskultura lehiaketa

Arte Taldeak antolatuta eta Zumaiaiko Udalaren babesean bi eskultura lehiaketa antolatu dira.

Lehenengoa eraiki berria den **itsas sarreran** kokatzeko da. Gaia librea da, eta materialak itsasoaren erasoak jasateko gai izan beharko du. Kokapena eskultorearen esku izango da. Lehen saria 4 milioikoa da eta 250.000 pezetako bi akzesit ere izango dira.

Bigarren lehiaketaren helburua **Narrondo ibaiertzeko** harresiaren ondoan kokatuko den eskultura aukeratzea da. Gaia "Julio Beobideri omenaldia" da eta edozein teknika erabil daiteke. Lehen saria 2 milioikoa



da eta hemen ere bi akzesit emango dira, bakoitza 150.000 peztakoak.

Bietan ere epea apirilaren 30ean amaitzen da. Argibide gehiago Udaleko hirigintza sailean.

## *laburrak* **EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZAK**

Zumaiaiko Udaleko Hezkuntza eta Euskara batzordeak, euskara ikasteko dirulaguntzak emango ditu. Bi deialdi egingo dira, lehena ekainaren 15etik 30a bitartean, eta bigarrena iraileko lehenengo hamabostaldian.

Dirulaguntzak jasotzeko honako baldintzak bete behar dira: Zumaian erroldatuta izatea, klaseetan gutxienez % 75eko asistentzia egiaztatzeko ziurtagiria eta ordaindutako matrikularen egiaztatzea (argibideak 860250 telefonoan, bulego orduetan).

## **AUTOMATEI BURUZKO IKASTAROA**

Zumaiaiko Institutuak Automata programagarri buruzko ikastaroa antolatu du, aldundiarekin batera langileentzat antolatzen diren birziklaia ikastaroen barnean. 22an hasiko da, 40 ordukoa da eta izena lehenbailehen ematea komeni da.



Argazki irabazlea.

## **ZUMAIA ELURRETAN**

Aurkeztutako 71 argazkien artean **Joxe Manuel Arrizabalaga** izan da lehiaketa irabazi duena (10.000 pzta). Gainontzeko hiru sariak, bakoitza 5.000 peztakoak Igor Uranga, Iratxe Aizpurua eta Josu Waliñorentzat izan dira (hirurak ere Baleikeko lan taldekoak).

**ENARA, S.L.**  
INPRIMATEGIA



Amaia Plaza 15  
Tlf: 862458



BASADI-KUSATEGUIA, 4-A HERRATEGIA  
ZUMAIAN TEL. 063061 URDATEGIA



**ENTER**  
INFORMATICA

Baltasar Etxabe kalea z/g  
Tlf: 861175 - Faxes: 860550

Auto - Konponketak

**ELKAR**



**PEUGEOT**

Estazioko kalea  
20750 ZUMAIA Telefonoa: 860201

**DISKO-BAR**



Alai Auzotegia 2.

Martxoan aurkeztu dute Rax Rinnekangas idazle finlandiarraren "Ilargia ihesi" liburuaren euskarazko bertsioa. Eta zumaia haur izan da itzultzaile lanak egin dituen, Mia Rissanenen laguntzarekin. Euskal Filologian lizentziatua da, eta

## Josefran Ispizua

irakasle da Donostiako lizeo batean. Finlandieraren kasua ezagutu bezain laster bertara joan eta ikasten hasi zen. Liburu hau itzultzea, erronka modukoa izan da, ingelesa eta gaztelaniara itzuli baino lehen euskaratu baitu.

# "Finlandiera euskara bezain bitxia duk"

### LIBURUA HEUK AUKERATU HUEN ALA ITZULTZEKO AGINDU ZIATEN?

Enkargua izan duk. Ereinetik deitu zidatean, finlandiera ikasten aritua nintzela jakin eta nobela bat itzultzea nahi zutela. Rax Rinnekangas, Joxe Mari Iturralde eta hirurok elkartu gintuan Ereinekoekin. Epe baten barruan lan hau hartuko al nian galdetu zidatean, eta hasieran kriston beldurrarekin baina beldurrik adierazi gabe, baietz esan nian.

Erronka polita zuan niretzat, izan ere, orain arte finlandiera ikastea hobya izan duk, gustu handiko hobya. Eta hortxe ikusten nian aukera urtetan landutakoari etekina ateratzeko.

### ZERGATIK ZIATEN LIBURU HAU ITZULTZEKO HALAKO INTERESA?

Rax eta Joxe Mari Iturralde aspalditik ezagutzen ditek elkar. Eta gertatzen zena zuan bi idazle adiskidetu eta ezin zutela bata bestearen lanik irakurri, euskaraz eta finlandieraz baino ez zeudelako. Proiektua lantzen hasi zituan eta gero



Finlandiera hobytzat hartzen du.

**LIBURU BAT:** *Ilargia ihesi*

**IDAZLEA:** Joan Mari Irigoien

**PELIKULA:** *Dersu Uzala*

**HERRIKO TXOKOA:**

Basusta aldea: irlak...

**AMETSA:**

Antoine Abbadiaren bizi-moduaren antzekoa izatea: esploradore, zientzilari, euskaltzale... marabila bat.

Ereinen bidez bideratu ditek. Hurrengo pausoa Iturralderen *Izua hemen* finlandierara itzultzea izango duk.

### AUTOREA ETA BERE OBRA EZAGUTZEN AL HITUEN?

Obrari buruz egia esan ez nekian ezer, baina idazleari buruz bai. Hara joan ninduan azken aldia, urtebetez egon nintzanean, hari buruzko kontuak entzuten netian eta ezagutu ere egin nian ia. Tipo hau idazlea baino ezagunagoa duk argazkilari lanetan, eta *Baskit* (Euskaldunak) izeneko argazki liburua ere badik. Oso liburu idealizatua duk, batez ere nekazal giroa biltzen duelako. Ez duk hemengo egoeraren oso irudi zuzena, ez duelako batere sakontzen. Bere azken nobela ere Euskal Herrian kokatzen duk, baina eskaintzen duen ikuspegia eta hiztegia ez dituk oso egokiak.

### ZAILA IZAN AL DUK ILARGIA IHESI ITZULTZEA?

Bai, hilabeteak pasa netian zentratu ezinik; batetik itzultzailearena



**Azkue Autoak**

Estazioko kalea, 19  
20750 ZUMAIA

Telefona: 861433  
Fax: 861067

**MAITE**  
**ILEAPAINDEGIA**

Berezitasuna ileen  
sendabidean

Amaiako plaza z/g Tlf: 143278



**Loitz**

- Eskola eta Bulegoko Materiala
- Fotokopiak
- Enkuadernazioak
- Plastifikazioak
- Fax Publikoa
- Aldizkari eta Opariak

Enbera Kalea, 4  
Telf.: Fax: 14 34 22  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

nire bigarren lana zelako, irakaskuntzaren ondoren. Zaila egiten zitzaidan literatura euskaraz jartzea, eta gainera finlandieratik izanda... Lanik handiena, hala ere, interpretatzea izan duk. Horretan Mia Rissanen izan diat laguntzaile fina, eta hiztegiaren aldetik ere asko lagundu zidak, hitz ezezagunetz gain hitz ezagunen adiera ezezagunak ere itzuli behar direlako.

Finlandieraz gertatzen duk, euskaraz bezala, hizkuntza batua ez dela gaztelaniera bezain finkatua, eta liburu honetan gauza pila bat bere dialekto kontuak dituk.

## **NOLAKO ESTILOA DUK RINNEKANGASENA?**

Bere hizkera literarioa nahiko berezia duk, nahiko ideolektoa duk, hizkera propioa dik. Hiztegiatan azaltzen ez diren hitz ugari ditik; finlandierak hitzak sortzeko aukera gehiago ematen dik, gainera. Eta hori euskaratzeko ondo interpretatu beharra zegok; eskerrak Miari. Bestalde, argazkilari deskripzioak egiten ditik, baina ez dituk deskripzio objektiboak.

## **ZER DA ILARGIA IHESIK KONTATZEN DUENA?**

Haur gazte batzuen mundua zegok alde batetik, eta bestetik helduena. Baserri batean bi seme-alaba dititek, eta lurralde horretako heldu gehienak sekta batekoak dituk, eliza luteranoaren barrukoak. Baserri horretara lehengusu gazte bat zetorrek eta bera duk narratzailea.

Uda batean gertatukoa kontatzen dik: anai-arrebak eta berak aparteko mundu bat bizi ditik, helduen mundu puritano horretatik oso desberdina. Mundu horretan harreman sexualak gertatzen dituk, eta horretaz aparte gauza polit pila bat ere bai, eta tartean heriotza ere baduk. Heriotz hori konpondu egin behar duk eta horren bila bukatzen duk liburua. Istorioan oso pertsonaia politak zeudek, lehengusuen aitona, adibidez.

## **GARRANTZIRIK EMATEN AL DIOK LEHENBIZI EUSKARARA ITZULTZEAREN KONTU HORRI?**


Bai, horixe. Ingelesera itzultzeko dagoenez, lan gehiago egin behar izan diat, erreferentziarik ez dudalako izan. Rinnekangas bera izan duk lehenbizi euskarara itzuli nahi izan duena.

**"Irakaskuntzak oso alderdi politak ditik, baina erre egiten hau. Oporrak dituk bere alderdirik onena"**

Garrantzitsua duk nire ustez horrelako gauzak egitea, nazioarteko lanak ahalik eta azkarren euskaraz ere irakurtzeko aukera izan dezagun.

## **HARREMANIK IZAN AL DUK RINNEKANGASEKIN?**

Iaz Donostian bizi zuan eta hiruzpalau aldiz elkartu ginduan, eta ildo batzuk markatu zizkidan neuk ere liburua hobeto uler nezan. Obraren sinbologia ere azaldu zidaan, baina batzuetan ezinezkoa izan duk dena itzultzea.



*Oso gustokoak ditu Finlandia eta bertako hizkuntza: finlandiera edo suomiera.*

## **JOSEBA OSA - ITZULPENAK -**

**EUSKARA-GAZTELERA-  
KATALANA-INGELES-  
FRANTSESA**

Tel / fax: 148065



**ELEKTRIZITATEA**

ISTALAZIO ELEKTRIKOAK  
ISTALAZIO MUSIKALAK  
AKUMULADOREAK  
ALARMAK  
ANTENAK  
PORTERO AUTOMATIKOAK

DENDA: K. Nagusia, 8 - Tel. - Fax: 14 30 97  
TAILERRA: Larretxo, 10 behe 1º - Tel. 14 34 74  
20750 ZUMAJA (Gipuzkoa)



**DORNUTEGI**

ARMAIRU ENPOTRATUAK

Plasadi Auzategia, 10 behe  
Telefonu: 862051

**SUKALDEKO  
ALTZARIAK**

20750 ZUMAJA  
(Gipuzkoa)



Herriko 'hika' berreskuratzea beharrezkoa dela esan digu Josefranek.

## NOLATAN IKASI DUK HAIN HIZKUNTZA BITXIA?

Euskara bezain hizkuntza bitxia duk, eta finlandieraren historia euskararen oso antzekoa duk: antzeko literatura izan ditek, tipologikoki ere antza baditek... Euskaldunontzat askoz ere errazagoa duk finlandiera ikastea espainiar edota ingeles batentzat baino. Niri ikaragarritzko satisfakzioak eman zizkidak. Finlandiako kasua ezagutu eta erabat erakarri nindian. Gainera Finlandiako Gobernua oso ondo portatu duk, hizkuntza hori ikasteko bekak eman baitizkit. Bestalde Finlandian oso-oso gustora sentitzen nauk. Zazpi aldiz izan nauk bertan eta berriz ere joateko irrikatzen nagok.

## BESTELAKO ITZULPEN LITERARIORIK EGIN AL DUK?

Bai, baina ez dituk liburu moduan argitaratu. García-Márquezekin pinito batzuk egin netian eta beste gauza txikiak egin ditiat. Itzulpengintza masterra egiten ari nintzela K-2000 bikoizketa etxearentzat eta ETBrentzat lan batzuk egin netian: kulebroiak, luzemetraiak eta beste zenbait gauza ingelesetik euskaratzen. Geroxeago testuliburuak itzultzen eta itzulpenak zuzentzen ere aritu izan nauk.

## GUSTOKO AL DUK IRAKASKUNTZA MUNDUA?

Oso alderdi politikak ditik. Karrera nabilela horixe zuan egin

**"Ilargia ihesi itzultzea erronka polita izan duk, eta orain arte ikasitakoari etekina ateratzeko aukera eman zidak"**

nahi nuena. Orain ertainetan nabilek eta gainera D ereduan. Gertatzen dena duk irakaskuntzak ikaragarri erretzen duela; irakaskuntzaren alderdirik onena oporrak dituk. Pozik nagok 4 urtez aritu ondoren 3 urteko eszedentzia hartu nuelako.

## "HIKA" IKASTAROA ERE HEUK EMAN HUEN. ZER MODUZ?

Polita izan zuan. Bildu zuan jendea kalitateko jendea zuan eta gehienok oso gustora jardun genian. Inprobisatzen ere aritu ginduan, programaren ildo ez zegoan oso lotua, baina oso ondo joan zuan. Laster beka bat aterako ditek hemengo formak biltzeko, eta hori herriarentzat oso ona duk, bestela hizkuntzak zati garrantzitsuak galtzen ditik. Nik gauza hauei "herria egitea" deitzen zieat.

## AFIZIORIK EDO BA AL DUK?

Kantua betidanik gustatu izan zaidak dexente. Artea orokorrean frustrazio handia duk nire bizitzan; betidanik gustatu izan zaizkidak eskulanak: pintura, zeramika... Bidaiatzea ere izugarri gustatzen zaidak. ■

**Arkupe**  
Okindegia  
eta gosariak  
Kale nagusia, 2



**OPTIKA  
ZUMAIA**

Txomin Agirre Kaia, 1 Tel. 143057  
20750 ZUMAIA

# Gernika Parkea txosnez gainezka

San Telmoak - 96

Zalantzarik gabe haxe da festa hauetako berritasunik aipagarriena, guztira 7 txosna jarriko baitira. Gazte Batzordea, EGI, AEK, Jarrai, Eguzki, Gestorak eta Ikasle Abertzaleak taldeek eskatu dute baimena, eta eskakizun guztiak onartu dira. Hori bai, udalak oso baldintza zorrotzak ezarri ditu.

Oraingoz ez da **txosnen inguruan** gauza gehiegi antolatu, baina beharbada eskenatokia ez da kenduko egun batzuetan eta ekintza ezberdinak antolatu daitezke bertan: Play-back saioak, txisteak, jokoak...

Bestalde aurtengo musika talde guztiak euskaldunak izango dira. 13an *Basakabi*, 14an *Egan Berria*, San Telmo egunean *Trikimailu*, 20an *Lisker* eta azkenik, igandean *FESTATXO* izango da.

Lehen larunbatean, 13an, Txupinazoaren ondoren **Mojittoa** egongo da txosnen inguruan. 2,30etan **Bazkari Herrikoia** egongo da Erribera kalean. Segidan **joko herrikoiak** antolatu dira Beheko plazan. Goizaldera, Kopraian **Txokolate jana** prestatuko dute Gazte Batzordekoek, eta denak batera, Itzurun hondartzarako "prozesioa" izango da, bertan askatuko baitituzte **Zezenak**.



Koadrilen partehartzea ezinbestekoa da.



Prozesiora joateko asmorik bai? (Fototeka).

Igandean, hilaren 14an, behar bezela indarberritu ondoren, trikitixaz dantza egiteko aukera izango da arratsaldean. Eta gaueko 11etan... **TANBORRADA BEREZIA.**

San Telmo egunean, meza eta prozesioaren ondoren, trikitixak herriko kaleak alaituko ditu. Arratsaldean, beste zenbait gauzen artean, **Postre Lehiaketa** goxoa izango da Kopraian, arratsaldeko 6,30etan.

Ostiralean, ekitaldi bakarra ageri da egitarauan: **Rock Kontzertua**. Gernika parkean izango da, txosnen inguruan.

Larunbatean, hilaren 20an, **Plaierotako finalak** jokatu dira Itzurunen. Arratsaldean fanfarre bat ibiliko da, eta gauean Itxas-Gain txaranga eta beste musika talde bat.

Igandean, arratsaldean, **Mus Txapelketa** jokatu da eta Kopraian **Txorixo egosi** pintxo bat jateko aukera izango degu. Gaueko 12etan, eta egitarau "ofizialean" azaltzen ez den arren, Justa aurrean **Banderaren Jeitsiera** izango da, San Telmo martxaren doinuarekin zapiak alde batera eta bestera mugituz. Eta gogoratu: egitaraurik onena, norberak jartzen duena! ■



## ERTZ INFORMATIKA

Mendaro Martiñela 3

TEL: 14-33-95

Zure INFORMATIKAKo Denda

-ORDENAGAILU P.C

-INPRIMAGAILU

-CD-ROM

-KRISTALEZKO PANTAILAK

-DISKETTEK



## AIZPURUA

L  
I  
B  
R  
U  
D  
E  
N  
D  
O  
P A R I A K

Aita-Mari Auzategia, 17  
Telefonoa: 861569  
20750 ZUMAIA



MIKEL GARATE  
"GASBITX"

Parranda pila bat botatzea pentsatzen det.



GOTZON OSA

Bueltatxo bat eman. Zer giro dagoen ikusi eta etxea!



OLIVER PEREZ  
JONATHAN BERNAL

Tabernan lana egin eta ondoren farra, farra eta farra!!



ANE OSA

Ez daukat planik. Ba ikusi girua, eta ez nahiz gehiegi mozkortuko, ez zait komeni eta. Baina ahal dudan ondoen pasatzen saiatuko naiz. A, eta San Telmo egunean gonbidatuta zaudete Errettolanean salda hartzera!



GOIZANE LASKIBAR

Gaupasa in!



UNAI, LEIRE, IKER  
(HIRUKIAK)

Tiobibotan ibili eta gero kamalastikan ibili, kamioian ibili eta kotxe bateko altabozetik esan. Txiribuelta eman eta buruari min eman. Ayra Durex-eko parkinera iritsi dira kamioiak tiobibuekin.



M<sup>rs</sup> PILAR  
ETA TRINI

Tanborrada beti ikusten degu. Goizean kalera irteten degu ambientia ikusi eta batekin eta bestearekin hitzegin. Baina gaua zeuentzat da, gaztientzat!



MAITANE MEABE

Afaria lagunekin, gero tanborradan parte hartu eta giruan ibili, hori bai!



AINHOA GASTIAÍN

Lanetikan abiatzekuan afaitxo bat egin edo horrela, parranda galantak bota eta musika pixkat entzunez dantza batzuk egin eta ondo pasa!



TABERNA  
Juan Belmonte 5 Tlf: 86 10 57





MENDI - ONDO  
ELEKTRIZITATEA

Axular 14  
20750 ZUMAILA

Telefonoak:  
860074 - 861569

- ALARMAK
- ANTENAK
- \* Banakoak
- \* Kolektiboak
- \* Satelite bidezkoak
- Atezain automatikoak
- Eta abar.





#

1996



# Nire drogak, zure drogak...

## Zumaiako drogak

**B**adirudi azkenaldian drogen gaia pil-pilean dabilela Zumaian. Batetik hainbat talde bildu ginen gai hau aztertzeko; bestetik Inpernupek antolatutako hitzaldia, eta baita Askagintzak egindako mahaingurua ere. Guzti hauetatik jasotako ideiak bilduz, Zumaiako zenbait drogazalerekin hitz egin degu gure herrian gai hau nola dagoen azertu asmoz. Horretarako abiapuntu bat hartu degu: guztiok drogatzen gera eta egunero, gainera. Baina ohitura txarra daukagu: guk hartzen degun droga ona omen da, kontrolatzen omen dakigu, baina besteek hartzen dutena txarra da. Hau erreportaia honetan ere nabarituko dezue. Zabaldutako ideiak eta hasi irakurtzen.



*Gero eta lehenago hasten omen da gazte jendea edaten.*

Ez gera sartuko legezko eta legezkontrako drogen eztabaidan, baina jakin beharra daukagu egunero drogatzen gerala. Eguneroko kafea, bazkaritako ardoa, tabakoa, buruko mina igerri orduko hartzen degun pastila... guztiak droga dira. Drogak ez dira gazteen kontu hutsa, eta ez dira tabernetan bakarrik saltzen.


Beti entzun degu orain gehiago edaten dela, gazteak asteburuero mozkortzen direla, etab. Tabernariekin hitz egin degu honetaz, eta esan digutenez «kontsumitzeko eran jendeak beste bizitzeko modu bat» hartu omen du lehendik honera, «puente bat edo aukera daukan bakoitzean gazte jendeak eskiatzera, mendira... aldegiten du». Duela urte batzuk «jende guztia tabernetan alternean»

ibiltzen omen zen, eta orain berriz «astebukaeretan ere jeitsi egin da. Festetan eta egun seinalatuetan bakarrik mozkortzen dira, eta gainera mozkorra gehiago kontrolatzen dute».

Hala ere honen arrazoia, drogatzeke erak aldatu izana ere bada. Orain, *kostoa* eta diseinuko droga gehiago hartzen dira, eta alkohola edatea hauekin kontrajarria dago.

Gainera gazteek astean zehar ez dute alkohola edateko ohiturarik. Hor daude hain gazte ez diren eguneroko txikiteroak. Askotan, alkohola egunero eskura dutenak ez dira konturatzen daukaten menpekotasunaz. Alkoholikoen esanetan, «horretaz ez dira konturatzen, zerbaitegatik (ospitaleratze bat

TXOKOA  
T  
B  
E  
R  
N  
A



Artadi  
Auzoa  
86 21 89

*Jesuskoa  
Fetetxea*



*Tfnoa 86 17 89 • Urdin Zumaiako*



**KABI**  
TABERNA - ZUMAIKO  
Tfnoa: 143379

adibidez) faltan botatzen dutenean konturatzen dira askotan».

Hala ere, alkoholikoak berea maila batean onartzen duen bitartean, okerrago ikusten ditu bestelako drogak: heroina, diseinukoak...

Heroinazale batekin ere hitz egin degu kontu honi buruz, eta argi ikusten da bere ikuspegia. Bere ustez drogatzeke era asko aldatu da. Orain jendeak diseinuko droga asko hartzen omen du. Heroina gutxiago hartzen omen da. Honen arrazoia «*heroina droga marjinala delako da. Norberak hartzen duena. Pastilak, speeda, etab. kultura baten inguruan mugitzen dira, musika bat, mobida propioa dauka, janzkera... errezagoa da horrelako mobida batean sartzea. Jendea errezago engantxatzen da moda bat delako, lehen hippy mobida egon zen bezela hau sortu da orain*».

### **Pastilak hartzen dituenak ez daki zer ari den hartzen**

Gainera «*pastileroa sozialki onartuago dago. Bakaladero bat ongi jantzita dago, dirua mugitzen duen pertsona da, yonkia oso tirauta joaten den bitartean, eta edozer gauza egin beharra dauka dirua lortzeko*». Drogaren eraginari buruz, «*pastilen eragina okerragoa da, burura eragiten dizulako, heroinak organismoari kalte egiten dion artean*».

Baita ere, adituek diotenez, pastilak hartzen dituenak ez omen daki

zer hartzen duen. Adibide bat: ia 70 extasi pastila mota ezberdin daude, gehienak eraginik ez duten farmako kadukatuz eginak, gainera. Askotan gehiago da nola nahi dezun egon, pastilak benetan egiten dizun eragina baino.

Hatxisak izan duen gorakada gero aztertuko badegu ere, gaur egun Zumaian diseinuko drogak dira nagusi, eta gero eta gehiago zabaltzen dira gainera, eta heroina oso gutxi ikusten da. Horren arrazoia «*HIESari zaion beldurra da. Orain zainetik baino gehiago erre ala esnifatuz sartzen da. Baina oraindik badago*»


Pastilak saltzea errezago omen da zaldia saltzea baino; bakaladeroekin hitz egin degu honetaz, eta beraien ustez «*pastilak oraingo heroina dira*», eta onartzen dute ez dakitela zer substantzi daukaten. Eraginei buruz azaldu digute «*gosia kentzen dute, eta 3 egun jan gabe pasa*» omen ditzakezu. Engantxatzen duena, «*beti toki berdinerara joan eta beti gauza iguala egitea da*», eta «*mobida horretako jendea dirua mugitzen duen jendea izaten da*».

Gau bat pasatzeko 10.000 pztatik gora behar omen dira.

Heroinari buruz galdetuta, «*yonkiak SIDArekin erlazionatzen ditugu*» izan da erantzuna. Baina pastilekin «*ez bazera astegunetan zaintzen gaizki bukatzen*» dela onartu digute. Garbi dute «*osasunarekin jokutzen degu, eta hemendik 10 urtetara eraginak igerriko ditugu*».

Zumaian oso zabalduta dagoen beste droga bat hatxisa da. Gaur egun gazte askok erretzen dituzte porroak Zumaian, oso errez lortu daitekeen droga bat baita. Zaltetuen esanetan «*dependentzi bat sortzen du*». Beraien ustez, hala ere, «*ez du eraginik*» eta «*heroina okerragoa da pastilak baino*».

Lan honetan batez ere legezkontrako drogak aztertu baditugu ere, drogazale mota asko dagoela garbi dago. Txarrena da guztiok elkarri pasatzen diogula pilota gai honi buruz hitz egiterakoan. Drogekin bizitzen ikasi behar degu, ezer ez baita txarra, gaizki erabiltzen ez den bitartean. ■



Txitxarro da bakaladeroen topagune-etako bat.

**Maiaur**  
Jolastokia

ARRAIN ETA MARISKOAK

**7**

BARAZKIAK ETA AURREZ PRESTATUTAKO JAKIAK

7 MARES IZOZTUAK

**LEIZE**

Juan Belmonte 6  
ZUMAIA

Tnoa: 860415

## Zenbait substantziren berezitasun eta ondorioak

Drogen legeztapenak ekarriko lituzkeen abantailak nabariak dira. Batetik, drogen atzean dauden botere ekonomiko guzti horiek gainditzea (manipulazio ekonomiko eta politikoa). Bestetik, drogen kontrol farmazeutikoa, hau da, drogak hartzen dituen pertsonak, zer ari den hartzen jakitea, edo behintzat substantziaren konposaketa. HIESa eta delinkuentziaren jeitsiera ere hor leudeke. Hala ere, guzti honetaz hitz egiteko tokirik ez degunez, gaur egun ezagutzen ditugun drogarik ezagunen ezaugarri eta ondorioak azalduko dizkizuegu.



Substantzia	Ezaugarriak	Epe motz eta luzerako ONDORIOAK
Heroina	-Injektatua. Oso atxekigarria. Gutziz arriskutsua. -Inhalatu eta erre ere bai.	<b>Epe motzera:</b> Euforia, logurea, gorakadak. Dosi gehiegirekin intoxikazio arrisku larria. <b>Epe luzera:</b> Anorexia, inpotentzia, idorreria, amenorrea, infekzio konplikazioak: hepatitis, tronboflebitis, endokarditis, abszesuak (zorrea). HIESA eta hepatitisaren arrisku handia.
Kokaina	-Hauts zuria. -Gutziz arriskutsua. -Inhalatu egiten da. -Erre (crack) eta injektatu ere bai.	<b>Epe motzera:</b> Nekea arintzen du, erasokortasuna, adimen bizitasuna gehitzen du. Adorea suspertzen du, ikusmen, entzumen eta ukimen aluzinazioak sortu ere bai. <b>Epe luzera:</b> REM loaren gutxitzea, urduritasuna, eszitazioa, kontrolatu ezina, paranoia, psikosia. Bihotz gaixotasunak, infartoa. 3 eta 5 urte bitartean ez dira sintomak nabaritzen, eta horretxek egiten du guztiz arriskutsua. Adikzio psikologiko gaitza.
Hipnotikoak eta barbiturikoak	-Ahoz hartuak. -Etxean aurki litezke (senda-gaitzat ere erabili ohi dira).	<b>Epe motzera:</b> Desorientazioa, moteldura, lasaitasuna, logurea. <b>Epe luzera:</b> Antsitazuna, ezinegon emozionala, higadura intelektuala, haserrekortasuna, anorexia, erupzioak, gibelesko gaitasunak. Erabilera jarraituz sor daiteke adikzioa.
Anfetaminak	-Ahoz hartuak. -Injektatuak.	<b>Epe motzera:</b> Bizitasuna, kitzikadura, euforia, logurea galtzea. Sarritan beste drogekin ere (alkohola, marihuana) nahasten da. <b>Epe luzera:</b> Suminkortasuna, paranoia, psikosia, adimen higadura. Anorexia, argaltzea, gibelesko gaixotasunak.
LSD eta aluzinogenoak	-Ahoz hartuak. -Era desberdinetan eskeinia forma solidoan. -Gutziz arriskutsua.	<b>Epe motzera:</b> Ilusio eta aluzinazioak. Denbora eta espazioaren pertzepzio motela. Gutziz arriskutsuak psikologia aldakorrek pertsonentzat. <b>Epe luzera:</b> Psikosia, batzutan atzerazinak, Flash-back esperientziak.
Marihuana (Cannabis)	-Tabakoarekin nahastuta erre ohi da. -Pipa bereziak ere badira.	<b>Epe motzera:</b> Euforia, desinhibizioa, ongizate sentazioa, besterenganako irekitasuna gehitzen da. Istripu arriskua (trafikoan, lanean). <b>Epe luzera:</b> Errendimenduaren gutxitzea, apatia, psikosia. Trastorno sexualak, arnasketa gaixotasunak, biriketako minbizia barne, trastorno entzefalikoak. Beste drogekin nahasten da, alkoholarekin, anfetaminekin, etab. Beste drogei bidea irekitzen die.
Alkohola	-Ahoz hartua	<b>Epe motzera:</b> Desinhibizioa, ernetasun egoera (dosi txikietan) mugimenduen baldartzea. <b>Epe luzera:</b> Urduritasuna, entzefalopatiak, psikosiak, eromena. Gibel, urdail, pankreas edota bihotzeko gaixotasunak, polineuritis. Alkoholismo kronikoa. Gazteen artean beste drogetara bidea ireki dezake.
Tabakoa	-Erre egiten da	<b>Epe motzera:</b> Lasaitasun sentazioa. <b>Epe luzera:</b> Arnasketa gaixotasunak, kardiobaskularrak, eta goi aldeko digestio bideetakoak. Tabakismo kronikoa.

### SOLOZABAL AUTOESKOLA

Gidatzeko karnet guztiak

- Klase teoriko zein praktikoak norberak nahi dituenean
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.

P. Etxezarreta 19 - Bis Tlf/Fax: 861416

Erribera kalea Telefonoa: 861523  
ZUMAIA

# Plazerraren gorputz zabala

**Aspaldi zaharrear  
desiratzea zilegi zenean, baten  
munduan zehar bizi zen bikote  
bat: KOITOA eta PLAZERRA.**

Koitoaren presentzia ezinbestekoa zen harremanetan, zenbait gorputz eta momentu plazerraren gartzela bihurtuz.

Baina behin batean bi neska elkarrekin gustora zeudelarik, plazerrari deika hasi ziren... Bi nesken artean sortzen ari zen harremanean, koittoa, zakila zuenez gidari, ez zen agertu. Plazerraren gaizkisentitzea zela eta, bere askatasunaren bidea jorratzen hasi zen. Halako batean belarri aldera gerturatzea bururatu zitzaion eta handik mingain bati deika hasi zen. Saiatze honen ondorioz mingaina eta belarria elkartu ziren, eta plazerra dantza berri baten erritmoan kanporatu zen.

Baina dantzak nesken gorputzetan luzera jo zuen eta ezpainak ere elkartu zituzten, baita ere ipurdiak, maginak, bizkarra eta hankak. Denbora luze batez ez zen bukatu plazerraren askatasun adierazpena.

Plazerrak aurkitutako askatasun iturri emankorra zela eta, koitoarekin konflikto batera iritsi zen. Koitoak ez zuen onartzen bere ezinbesteko presentzia ukatzea eta

iturri berriekiko lehia sentitzea.

Baina plazerrak, lotura guztietatik eta gorputzaren mugetatik aske sentitu nahirik, bere bidetik jarraitzea erabaki zuen.

Horrela, gorputz guztien ezagutzan eman zuen handik aurrera bere denbora. Gero eta dantza berri gehiagoren erritmoak sortu zituen eta horietako dantza

batzuetan bakarrik izan zuen koittoa bikotetzat.

Plazerrak mundu zabala ezagutu zuen honako esaearen mezua jarraituz: "ezagutzea bai dela edertasuna, ederra denak ezagutzen du, zeinek ez du ezagutzen? Edertasuna izkutatu duenak".

Eta bera pozik bizi bazen, bizi gaitezen gu ere. ■



**ERROTA**  
**ERROTA**  
OPIL - OKINDEGIA

Juan Belmonte, 39 - Tfno. 86 23 66  
Erribera, 2 - Tfno. 14 30 01  
ZUMAIA

**AXIER KIROLAK**

Ortega y Gasset, 2  
ZUMAIA

Telefonoa: 862206

**ARGIA**

Itzurun, 1 - Telf. 86 09 93  
ZUMAIA

# Kamel Ziani eta Amelia Lorza

## XII. herri krosean garaile



**Kamel Ziani** oriotarrak eskuratu du aurten ere Zumaiako krosa, oraingoan berak bakarrik. Txistu bizian ibili zen ibilbide guztian zehar, eta iaz Apalantza eta biek ezarri zuten marka 22 segundutan hobetu zuen (30'29"), 40.000 pzta gehiago eskuratuz. Joxe Apalantza bigarren postuan sartu zen eta Cesar Perez donostiarra hirugarrenean.

Emakumezkoei dagokienez **Amelia Lorza** Donostiako korrikalari betetera, Usoa Sorazu getariarraren aurretik sartu zen, 5.800 metro ia 20 minutu baino gutxiagoan eginez (20'06"). Hirugarren Maite Civicos lasartearra sailkatu zen.

Zumaiarren artean gizonetakoan **Jesus Mari Alvarok** Mariano Sanchez aurrea hartu zion eta marka polita egin zuen, 34'22". Hirugarren postuan eta junior mailan lehenbizikoan Jon Gonzalez Leturiondo gaztea sartu zen, 37'07"ko denbora eginez.

Emakumeen artean aipagarria da **Arritxu Urbietta** juniorra sartu zela lehen postuan, 27'22" denbora eginez, eta bere atzetik Mila Garcia eta Elisa Agirrezabal.

Jubenilen mailan ere 5.800 metro korritu zituzten eta **Mussin Akrike** zumaiarra errez nagusitu zen, 19'49" marka bikainarekin. Juan Luis Alberdi hirugarren izan zen (26'31").

Eguraldia bikaina izan zen eta antolaketa ere oso ona. Jende ugari bildu zen lasterketa ikusten, batez ere moila inguruetan. Guztira 380 korrikalarik hartu zuten parte krosean. Gizonezkoetan 308 lagunek irten zuten eta 280k amaitu (66 zumaiar). Emakumezkoetan 72 ziren irteeran eta 69 iritsi ziren helmugara (14 zumaiar, irteerako guztiak).

Ea hurrengo urteko krosa ere aurtengoa bezain arrakastatsua den! Eta badakizue, pixka bat lehenago prestatzen hasi eta parte hartu! ■

### SAILKAPENAK

#### Emakumezkoen sailkapena

1	Lorza Lopez, Amelia	20'06"
2	Sorazu Otamendi, Usoa	20'12"
3	Civicos Marcoa, Maite	22'22"
4	Luenan Antolin, Rosa Mari	22'46"
5	Alonso Rosas, Lourdes	23'14"
6	Estefania vazquez, Esther	23'19"
7	Arriola Diez, Maria Pilar	23'21"
8	Silvano Prieto, Maria Jesus	23'22"
9	Eizagirre Zaldua, Arantza	23'25"
10	Azpeitia Eizagirre, Agurtzane	23'45"



Karmele eta Leire aldapan behera.

#### Zumaiarrak

29	Urbietta Lasa, Arritxu	27'22"
35	Garcia Villadangos, Mila	28'26"
36	Agirrezabal G <sup>a</sup> de Cortazar, E.	28'42"
39	Martija Coello, Edurne	29'28"
44	Aizpurua, M <sup>a</sup> Isabel	29'53"
45	Mendizabal, Ana Delia	29'55"
46	Amilibia Rubio, Leire	29'56"
47	Manterola, Maria Pilar	29'57"
48	Sasiain Calvo, Karmele	29'58"
63	Jimenez Martin, Maria Pilar	30'28"
65	Aizpurua Urkola, Maria Jose	30'30"
66	Aseginolaza, Ines	30'31"
68	Uranga Eizagirre, Uxua	30'33"
69	Garcia Bernardo, Inmaculada	30'34"



**Gizonezkoen sailkapena**



*Jon Gonzalez, Antton eta Javiren artean, aitarien azken animoak jasotzen.*

1	Ziani Huasisi, Kamel	30'29"
2	Apalantza Beristain, Joxe	31'41"
3	Perez Rodriguez, Cesar	31'54"
4	Arregi Olaizola, Josu	32'34"
5	Jausoro Belategi, Ramon	32'38"
6	Arrieta Bakaikoa, Alvaro	32'44"
7	Aldai Aguirre, Juan	32'54"
8	Revuelta Garcia, Alberto	33'00"
9	Manzisor, Iosu	33'01"
10	Vaqueriza Etxeberria, Josexto	33'12"

**Zumaiarrak**

19	Alvaro, Jesus Mari	34'22"
24	Sanchez de la Flor, Mariano	35'23"
46	Gonzalez Leturiondo, Jon	37'07"
48	Amenabar Exkerra, Javi	37'27"
49	Lopez, Juan Manuel	37'27"
57	Sasiain Zubimendi, Mikel	37'43"
70	Santamaria Sanchez, Peio	38'18"
76	Osa Peña, Jaime	38'53"
79	Esteibar Soraluze, Erlantz	39'02"
87	Lopetegi Salegi, Jose Mari	39'21"
88	Agirre Esnal, Felipe	39'26"
96	Irureta Ostolaza, Xabier	40'03"
99	Tamayo Etxegoien, Txetxu	40'06"
100	Aginagalde, Jesus Mari	40'06"

101	Villar Kalparsoro, Vicente	40'07"
103	Alkorta, Juan Ignacio	40'10"
106	Sasiain Zubimendi, Ion	40'15"
109	Barrera Portillo, Javier	40'18"
120	Egaña Iztueta, Josu	40'55"
121	Igual Sanchez, Julian	41'01"
137	Gajate Pinedo, Fernando	41'45"
140	Egiguren Egiguren, Agustin	41'57"
142	Yeregi Letamendi, Mikel	42'01"
147	Zuazobide Egaña, Imanol	42'22"
159	Martin Escudero, Roberto	42'53"
163	Aramendi, Miguel	43'15"
165	Enbil Unanue, Gotzon	43'22"
174	Azkue Ibarbia, Xabier	44'25"
175	Olaizola Aizpuru, Victor	44'25"
176	Zumeaga, Jose Agustin	44'26"
177	Elizalde Azkue, Xabier	44'26"
183	Zubia Zaldua, Faustino	44'38"
184	Florez Esnal, Julian	44'38"
185	Jimenez Olaizola, Peio	44'42"
186	Otaño Uranga, Ramon	44'43"
198	Hidalgo Romero, Jose Maria	45'33"
204	Garcia Lopez, Abundio	45'51"
210	Fernandez Galan, Antonio	45'58"
212	Agirrezabalaga, Jose Mari	46'25"
213	Carballo Ostolaza, Peio	46'28"
219	Aizpurua Arozena, Agustin	46'40"



*Julian Igual, Gernika parkean zehar. Beteranoen artean 3. postuan sartu zen.*



*Carballo anaiak, Peio eta Dani, ilehoriaren atzetik.*

223	Olaizola Antia, Manu	46'45"
225	Esnal Izquierdo, Jose Andres	47'04"
226	Carballo Ostolaza, Daniel	47'11"
227	Ibarguren Plaza, Iñaki	47'11"
231	Manzisor, Jose Antonio	47'40"
232	Arano Apestegi, Fernando	47'41"
235	Unanue Makazaga, Xabier	48'06"
236	Aizpurua Urkola, Iñaki	48'16"
237	Balenziaga Repulles, Karlos	48'18"
238	Caporossi Urrestilla, Bernard	48'21"
239	Alvarez Yeregi, Jon	48'21"
242	Jimenez Gomez, Teodoro	48'43"
244	Albizu Yeregi, Joxe Mari	48'47"
250	Garcia Fernandez, C.Alberto	48'49"
252	Etxabe Etxabe, Pedro	50'24"
255	Aranbarri Plazaola, Feliciano	50'56"
261	Ugartemendia Arregi, Cruz	51'15"
262	Alzibar Arozena, Xabier	51'16"
267	Grijalba Azpiroz, Ernesto	52'32"
268	Galarraga, Luis Santos	53'12"
269	Aldai Txapartegi, Iñigo	53'34"
270	Aizpurua Irigoien, Eneka	53'34"
275	Martinez Aristegi, Igor	54'35"
276	Eizagirre Alvarez, Javier	54'36"
277	Larrañaga Agirre, Joseba	54'40"
278	Sanchez Noriega, Jose Luis	54'40"



Basadi Auzategia, 10-A atzean      Telefonoa: 862228      ZUMAIA

**xirula**



ARGAZKI ETA BIDEO  
ERREPORTAIK  
ERREBELATZEAK  
KAMARAK  
MUSIKA

TELEBISTA  
BIDEO  
HI-FI

Erribera kalea, z/g      20750 ZUMAIA  
Tel. 861705

# Intza Uranga erbi bizkorra

## Espainiako Atletismo Txapelketa irabazi berri du

16 urteko neskatila zumaier honek ia bere bizitza osoa Bilbo aldean eman du. Atletismoan oso gazterik hasi eta une honetan estatu mailan etorkizun gehien duen korrikalarietako bat bilakatatu zaigu.

Jubenil mailan 1.500 metrotan Espainiako txapelketa irabazi berria du eta krosean zazpigarren postua eskuratu du. Iaz Euskadiko Txapelketan 300. 1.000 eta 3.000 metrotako lasterketak bereganatu eta krosean ere titulu bera eskuratu zuen.



Etorkizun bikaina du Intzak atletismo munduan.

**NOIZ ETA ZERGATIK HASI ZINEN KORRIKA?**

10 urte nituela hasi nintzen, eta irakasle batek animatu ninduen goma saltoan mutilek baino gehiago saltatzen nuelako.

**PISTA ETA KROSEAN ARITZEN ZERA. ZER NAHIAGO?**

Nahiago... nahiago det krosa, baina pistan korritzea ere gustatzen zait.

**MARTXOAREN 3AN VALENTZIAN ESPAINIAKO TXAPELDUN 1.500 METROTAN. HAU AL DA ZURE ESPEZIALITATEA?**

Ez, distantzia motzago eta luzeagotan ere aritzen naiz. Gertatzen

dena da neraman prestaketagatik proba hori korritzeko egokia zela.

**“Olinpiada batzutan korritzea asko gustatuko litzaidake”**

**ZURE HURRENGO LASTERKETAK, PROIEKTUAK?**

Ekaina bukaera aldera Alcorconen (Madril) aire librean egingo diren Espainiako Txapelketan marka on bat egitea. Bertan, 800 eta 1.500 metrotan parte hartuko dut. Txapelkun geratu edo behintzat denbora ona egiten badet, Errusia-Frantzia-Espainia arteko proba garrantzitsu batean izango naiz.

**EPE LUZERA BA AL DEZU HELBURU ZEHATZIK?**

Ez. Gauzak datozen bezala hartu, eta nola irteten diren ikusi. Noski, Olinpiada batzutan korritzea asko gustatuko litzaidake, baina oraindik urruti ikusten det.

**ASKO SAKRIFIKATZEN AL ZERA FORMA MANTENTZEKO?**

Ez gehiegi. Nik bizitza normala egiten det. Denetik jaten det, hori bai, pixka bat kontrolatuz. Denbora, berriz, dexente kentzen dit, batez ere kontzentraziotan gaudenean.

Honek, ordea, bere alde onak ere baditu, horrelako lekuetan lagun asko egiten baitira eta toki asko ezagutu. ■

**AIZMAN-KOS S.L.**  
SANEAMENDU ETA  
ERAIKUNTZA MATERIALA

Iraeta auzoa  
z/g  
Aptdo. 78

Tlf/Fax: 14 81 24  
20740 IRAETA -  
ZESTOA

ILE APAINDEGIA

**herea**  
**uranga**

Etkezaretza, 19  
Telefona: 862342

20750 ZUMAIA

**JOXE  
MANUEL**

**Kupoi batzuk  
erosi eta ...**

**ZORTE ON !!**





## Azken emaitzak

BUITRAKER 1 - IPURBELTZ 4  
 AGINAGALDE 7 - KABI TABERNA 2  
 ZUMEA TABERNA 2 - XEMETAXIO 9  
**FINAL-ERDIAK**  
 BUITRAKER 4 - AUTOS ZUMAIA 0  
 EVERIN 1 - KABI TABERNA 4  
 AGINAGALDE 1 - XENETAXIO 2

## FINALAK

**APIRILAK 20**  
 9,30ETAN KOPAKOA  
 BUITRAKER - IPURBELTZ  
 12ETAN LIGAKOA  
 XEMETAXIO - KABI TABERNA

Finalak  
erabakita

Hil honen 20an jokatuko dira plaiero txapelketa honetako finalak, San Telmo jaien bigarren asteburuan hain zuzen ere.

LIGAn Xemetaxio eta Kabi Taberna izango ditugu aurrez aurre. Xemetaxiotarrek juxtu samar baina orain artean indartsuena zirudien Aginagalde-Gerezi taldeari irabazi zioten, eta iaz lortu ez zutena lortzeko aukera dute aurten. Aurrean Kabikoak izango dituzte; hauek txapelketako errebelazio bihurtu dira, Everin talde azpeitiarrari errez irabazi ondoren finalean sartzea lortu baitute.

KOPAKo finala Ekin Buitraker eta Ipurbeltz taldeek jokatuko dute. Azken partiduan zestorrek irabazi zuten 4-1. Mendekua hartuko ote dute buitrakertarrek? Hilaren 20an ikusiko degu.

## PALA TXAPELKETA HASI DA



Martxoaren 24ean eman zitzaion hasiera paleta gomazko bigarren San Pedro sariari. Guztira 21 bikotek eman dute izena, denak ere zumaiarrak. Iaz ere 21 bikote izan ziren, 14 bertakoak eta 7 kanpokoak.

Lau taldetan banatu dira bikoteak, eta asteburuero jokatuko dira partiduak, San Telmotako lehen asteburuan izan ezik. Ostiralero iluntzeko 8,30etan izaten dira partiduak eta igandero goizeko 10,30etatik aurrera. Txapelketa hau hurbiletik jarraiten saiatuko gera.

izerdi tantak  
Itxas-Gainekoak Bigarren  
Euskadiko Txapelketan

Irunen jokatutako Euskadiko Txapelketan bigarren postua eskuratu zuten piraguista zumaiarrek, eta lehen postutik oso hurbil geratu ziren.

Seniorretan Eñaut Aizpuruak garaipena eskuratu zuen, eta bere anaia Oier laugarren postuan sartu zen. Jubeniletan podium osoa zumaiarrek osatu zuten: Aitor Manzisidor aurrena helmugaratu zen eta bere atzetik Andoni Amilibia eta Haize Galarraga. Kadete mailan ere lehen bi postuak zumaiarrentzat izan ziren, Santiago Banda eta Iñigo Agirrentzat, hain zuzen ere.

Nesketan Mari Jose Mendizabal lehen postuan sartu zen senior mailan. Irati Azkue jubentia laugarren, eta kadetetan Amaia Lisbona aurrena zihuala erretiratu behar izan zuen.

Bestalde 12 palista joan dira Sevillan jokatu den Espainiako Txapelketara. Ea han ere lan txukuna betetzen duten!

Eskubaloi taldeko  
neskak bikain

Pulpo taldeko kadete mailako neskek ligan lehen postua eskuratu dute, eta orain kopan arituko dira. Jubenilak, berriz, azpitxapeldun geratu dira, justu samar bada ere zarauztarren aurkako bi partiduak galdu ondoren.

KALARI TABERNA  
JATETXEA

- \* Eguneko menua
- \* Plater konbinatuak
- \* Kaxuelak - Otartekoak

Erribera, 16 Tfnoa: 860660 ZUMAIA



JUSTA  
TABERNA  
EGUNEROKO  
BAZKARIAK

Erribera kalea 20

## II. ERREPUBLIKA ZUMAIAN

Ia guztiok dakigun bezala 1931ko apirilaren 14an Errepublika aldarrikatu zen Espainian, baina askok jakingo ez duena, aldaketa honek Zumaian izan zuen eragina da.

**Ismael Manterola Ispizua**

Apirilaren 12ko hauteskundeen emaitzak ikusita, aukeratutako zinegotziak udaletxean bildu ziren 15ean alkatea hautatzeko: Victoriano Arrate, Juan Arratibel, Benigno Arrieta, Leon Esnal, Martin Elorriaga, Gabriel Betondo, Zacarias Arribabalaga, Sotero Azpeitia, Eduardo Zubia, Alejandro Lartigue eta Manuel Urruzuno ziren hautestontzietan iritendako kontzejalak.

Aldeko 10 botori esker eta boto zuri bakar batekin, Victoriano Arrate jauna Eusko Alderdi Jeltzaleko partaidea aukeratu zuten alkate. Ondoren lehen eta bigarren alkateordeak aukeratu zituzten, bat Juan Arratibel Partido Republicano Vascoko zerrendetan aurkeztutakoa eta bestea Benigno Arrieta.



Berehala alkateak eta lehen alkateordeak Udal Errepublikarraren lehen mozioa aurkeztu zuten: "Eskatzen dugu erabaki hau hartzea: Euskal errepublikaren aldarrikapena eta honen eraketa, beste Erregio ezberdinetan osatzen direnekin batera konfederakuntza osatzeko", Akta liburuak dionez, udalak *entusiasmo* haundiz onartu zuen aitatutako mozioa eta Euskal Errepublika aldarrikatu zuten, erabakia Espainiako behin-behineko

Gobernuko presidenteari bialduz.

Ikusten denez garai hartako helburu politikoak gaur egunekoak baino garbiagoak ziren eta bai Eusko Alderdi Jeltzaleak, bai Partido Republicano Vasco delakoak ez zuten arazo gehiegirik Euskal errepublika aldarrikatzeko eta aldeko mozioak onartzerako orduan adostasuna bilatzeko. Non gelditu dira ideal haiek 65 urte pasa ondoren? Diktaduraren 40 urte ez dira alferrik pasa, ez horixe! ■



**GILANO**

Paperdenda  
Prentsa  
Aldizkariak  
Fotokopiak  
Enkuadernazioak  
Liburuak

LIBURUDENDA

Baltasar Etxabe 7  
Tlf: 14 31 91



**ZURICH**

ASEGURUAK

Bonifazio Etxegarai, 1  
Tel. Faxes. 860169

*Alberdi*

GIZONEZKOEN MODA



Erribera kalea 6  
Tlf: 861155



**BASUSTA**  
ERRETEGIA

M<sup>o</sup> Dolores Aizpurua

Pantxita Etxezarreta, 25  
Telefonoa: 862073

20750 ZUMAIA

**ZALLA**

Taberna - Erreteria  
**PLATER KONBINATUAK**

OTARTEKOAK

**OILASKO ERREAK**

San Pedro, 4 - Zumaia Tlf: 862387

**Galdona**



burdindegia

Mendaro mariñela, 1  
Juan Belmonte, 15  
Tlf: 86 11 17 / 14 33 46  
Fax: 861330

20750  
ZUMAIA  
(Gipuzkoa)



Apirilak 27, larunbatez, **HERRIKO ALDE ZAHARRA** ikusteko irteera bat prestatu du Arte Taldeak eta kultur etxeak: Parrokia, Jauregia, Uriarteneko etxea, Ubillos... eraikuntza eta txoko interesgarrienak ikusiko dira.

**ERAKUSKETA**

San Juan egoitzako aiton-amonek egindako eskulanean ohizko erakusketa **Forondan** izango da ikusgai, apirilaren 16tik 23ra.



**ABESBATZEN SAIOA**

San Telmo jaien egitarauko lehen ekitaldia, **San Pedro Txiki** eta **Mutrikuko** abesbatzen saioa izango dugu. Apirilaren 12an abestuko dute, ostiralean, arratsaldeko 6etan Aita Mari aretoan.

**BERTSO SAIOA**



Urtero bezela, txupinazoaren bezperan Bertso saioa izango dugu Maria eta Jose ikastetxean. Hilaren 12an izango da, gaueko 10,30etan.

Honako bertsolariak izango dira bertan:

- Joxe Agirre
- Andoni Egaña
- Jesus Mari Irazu
- Sebastian Lizaso
- Jon Maia
- Jon Sarasua

Gai-jartzen Inaxio Usarralde izango da.

**HITANOA AZTERTZEKO BEKA**

Hika hitz egiteko ohituta galtzen ari dela ikusirik, Hezkuntza eta Euskara batzordeak herriko hikako formak jaso eta aztertzeke beka bat sortzeko asmoa du.

Azterketa horren ondorioz ateratako emaitzak argitaratu egingo dira eta gero Horretarako antolatutako **ikastaroen** bidez, herriko hikako hizkera landu eta ikasteko aukera eskeiniko da.

Bekaren kopurua eta baldintzak zehazten direnean jainaraziko dira.

**UDA MUSIKALA**

Zumaiako Uda Musikalaren XII. ediziorako **ikastaroen egitaraua** prest dago, eta izenemate epea zabalik dago uztaila bitartean. Eskuprograma kultur etxean edo Ubillos musika etxean eskura dezakezue.

**SAN PEDRO ABESBATZA**

Aste Santuan eta San Telmo egunean, Parrokiako San Pedro abesbatzak kantatuko du.

Ostegun eta Ostiral Santuko elizkizunetan, gurutz bidean, prozesioan, Pazko eguneko meza nagusian eta San Telmo eguneko elizkizunetan azken egunetan entsaiatutako kanta guztiak abestuko dituzte.



**Zerbitzu Ofiziala**

**ZUMAIA AUTOAK**

Juan Belmonte, 45  
ZUMAIA

Telefonoa: 861485  
Fax: 143143

**E G U Z K I**  
**PUB**  
KOKTEL BEREZIAK  
Basadi Auzategia  
9-A 2-B  
ZUMAIA

**ITSASKI**  
supermerkatua



Urumea kalea z/g  
Zumaia



## HEAT (1995)

**ZUZ.:** Michael Mann  
**AKT.:** Al Pacino, Robert de Niro, Val Kilmer.

Robert de Niro eta bere lagunek Los Angeles hiria hartu dute lapurreta batzuk egiteko. Horietako batean hiru zaindari hiltzen dituzte, eta Al Pacino jokoan sartzen da. Bere helburua: Robert de Niro harrapatzea. Pixkanaka hurreratzen joango dira, bukaera izugarri batera heldu arte.

Michael Mannen filme honek, orain dela 22 urte Coppolak *El Padrinoren* bigarren partearekin lortu ez zuen zerbait lortu du: Al Pacino eta Robert de Niro plano berean agertzea. Honekin batera akziozko momentu ikusgarriak ikusiko ditugu eta baita protagonisten pentsatzeko modua aztertu ere.

Protagonismoa gizonetzkoek dute, eta emakumeei oso paper txikiak eskeintzen zaizkie. Kritikarien ustez pelikula honek Sergio Leone, Sam Peckinpah eta Brian de Palmaren eragin handia du, hau da, irauten dituen 3 orduetan tentsioz beteriko zinema neurrigabea ikusteko aukera izango dugu.

### Zine kritikak

	EGIN	DV	Egunkaria
<b>Casino</b> Zuz: Martin Scorsese	☆☆	☆☆ ☆☆	—
<b>Felpudo maldito</b> Zuz: Josiane Balasko	☆☆☆	☆☆☆	☆☆☆
<b>Heat</b> Zuz: Michael Mann	☆☆☆ ☆☆	☆☆ ☆☆	—



## IRAKURKETARAKO AUKERAK

Hemen dezue Udal Liburutegian aurki ditzakezuen liburu berri eta interesgarrien aukeraketa bat. Dasta eta goza izazu ahal dezun neurrian

### Euskaraz


- Kontu zaharrak *Joxe Arratibel*
- Ripleyren jokia *Patricia Highsmith*
- Laudanoa eta sutautsa *Edorta Jimenez*
- Alegia deus ez! *Leon Leon*
- 9508 narrazioak *EGUNKARIA*
- Bizitzaren sentimendu tragikoak *Miguel de Unamuno*

### Gaztetxoentzat

- Amaigabeko istorioa *Michael Ende*
- Irakasle alu bat *Xabier Mendiguren*
- Saltxitxak eguzkipean *Raymond Plante*

### Gazteleraz

- El amor, las mujeres y la vida
- La noche de Iesi
- Paddy Clarke, ja, ja, ja
- Tengamos el sexo en paz
- El viaje prodigioso
- Cuando fui mortal
- Varadero
- Justicia corrupta
- Tres Barojas



- Mario Benedetti*
- Peter Berling*
- Roddy Doyle*
- Franca Fo*
- Manuel Leguineche*
- Javier Marías*
- Juana Salabert*
- N.T. Rosenberg*
- Carmen Baroja*

KOSTA GAS



GAS ETA  
KALEFAZIO  
INSTALAZIOAK

expert  
ELEKTROGAILUAK

Mertxe Aizpurua  
expert eta  
Repsol-Butanoren  
Banatzaile Ofiziala

Etxezarreta, 6 • Tfnoa 86 10 78 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

GURE TXOKOA  
TABERNA

Kaxuelita eta pintxo  
ezberdinak

San Pedro kalea Zumaia

# Herriko etorkizuna frontoi txikian

Jende ugari bildu zen hilaren 22an frontoi txikian izan zen kontzertu honetan. Giro ederra egon zen eta musikari gazteek bikain erantzun zuten jarri zitzaizen erronkaren aurrean.

Lehenbizi musika eskolako ikasleek jo zuten, eta batzuk kanta bakarra joz beste batzuk gehiago, aurrerapen haundiak egiten ari direla frogatu zuten.

Segidan **Atxantatu** taldekoek konfidantza ikaragarria erakutsi zuten, eta **AGE**ko beteranoeak eman zioten amaiera jaialdiari.



MAKETAK

Uncle Mussels



## Funki euskalduna?

Hori da izen arraroa, atzerriko talde bat dirudi. *Stoned* eta *Just for Men* kantuak soilik entzunez gero ia inork ez luke ziurtatuko euskaldunak direnik. *Beroa*, *Amieguito*, *zer da?* eta *Gezi biziak* konposaketak gure eskuetan eroriz gero, aldiz, bat baino gehiago harro sentituko litzateke Euskal Herrian musika Funkiak sustraiak badituelako.

Jokin (ahotsa), Asier (kitarra) Josean (bajoa) eta Josu (bateria) ditugu *Uncle Mussel*seko partaide zuzenak. Agian pixkat berandu datorkigu zinta hau gure aldizkarira, 1994ko azaroan grabatua baitago, baina gure ustez inoiz ez da beranduegi honelako laukote bat

dastatzeko. Tolosarrak direnez iaz "Martxaundi 2" izeneko albumean, herri bertako 13 talderekin batera, kantu bat grabatzeko aukera izan zuten eta igertzen da bai, duten esperientzia. Maketa honekin duda guztiak ezabatzen dituzte, base erritmiko txukun eta tinkoa dutela erakutsiz. Ongi moldatzen dira bai, eta ez dute batere konplexurik organo bat sartzeko orduan (Edu "Window Ventanas"), kitarra edo ahots nahasketak egiterakoan, ezta koroak nagusitzerakoan, zeren erraz menderatzen dituzte beren abestiak.

Kalitatea ez zaie falta, hori argi ikusten da; beraz, beren lehen diska laster gure eskuetan izatea espero degu. ■

**IHINTZA**  
taberna

Tlf: 860472  
Ortega y Gasset, 3

**TXALAPARTA**  
O P A R I A K

Angeles Sorazu, 2  
20750 ZUMAIA  
(Gipuzkoa)

Telf. 14 30 85  
Fax. 43 06 37

**JE MAR**

**LOREDE NDA**

LANDAREAK  
LOREAK  
HAZIAK  
ZERAMIKAK

1 Telefonoa: 860375  
20750 ZUMAIA



# Motxian hi!

Nor: Jokin Prieto  
Zer: Ostalari internazionala


- ALI BABA BAZINA, LAPURTZEKO ZER ESKATUKO ZENIEKE 40 LAPURREI?
- AHAL DUTEN GUZTIA, BAINA BEHARTSUEI EMATEKO.
- ZEIN DA GEHIEN GUSTATZEN ZAIZUN PIZZA?
- EGITEN DITUDAN GUZTIAK. BEREZI BAT EGITEN DUT, BAINA ORAINDIK EZ DIOT IZENIK JARRI.
- NORI EZ ZENIOKE INOIZ GEZURRIK ESANGO?
- AMARI.
- LEHEN MUXUA NOIZ ETA NON?
- 13 URTEKIN IZAN ZEN, ZUMAIAN BERTAN.
- KALEAN LANPARA MAGIKOA AURKITUKO BAZENU, ZEIN DIRA ESKATUKO ZENITUZKEEN 3 DESIOAK?
- OSASUNA, PAKEA, ADISKIDETASUNA ETA LANA.
- ZER DAGO SOBERAN ZUMAIAN?
- EZ DAGO EZER SOBERAN, DENA FALTA DA.
- ZER EGINGO ZENUKE OHE BIRIBIL BATEAN?
- MUNDUKO PLAZER GUZTIA BILATU.
- IA MUNDU GUZTIA KORRITU DUZU. ZEIN HERRIALDE AUKERATUKO ZENUKE?
- BIZITZEKO MEXIKO DUT GUSTOKOENA. HERRI LATINDARRA DA, DISTIRA HANDIKOA, KOLORETSUA... IZUGARRI MAITE DUT.
- ZUMAIARRAK MODAN IBILTZEN AL DIRA?
- GAUR EGUN EZ DAGO MODARIK.
- EZAGUTU DUZUN PERTSONARIK AIPAGARRIENA?
- 1976AN SUITZAN PERTSIAKO SHA EZAGUTU NUEN. ARTISTEI DAGOKIENEZ ASKO EZAGUTU DITUT: CHARLOT, LIZ TAYLOR, SOFIA LOREN, ANTHONY QUINN, FRANK SINATRA, CELA, ESPAIANIKO ERREGA (PRINTZIPE ZENEAN)...
- GEHIENA MIRESTEN DUZUN PERTSONA?
- EDUARDO TXILLIDA.
- ZUMAIAKO GIZONIK DOTOREENA?
- EZINDIZUT ERANTZUN.

## Kontu-kontari

### TXAPERUAREN KURIOSITATEA

Duela 50 urte inguru Zumaian gertatutako kontua da hau. Gosea oso zabaldua zegoen gaitza zen garai hartan, eta izkutuko gauza asko egin behar izaten zen janari batzuk eskuratu ahal izateko. Bi anai baziren "La Guipuzcoana" izeneko garraio enpresan. Baserrietara irteera batzuk ere egiten zituzten hauek, abereak kargatu eta gero hilda ekartzeko. Hau ez zen legezkoa eta behin baino gehiagotan harrapatu zituzten txaperuek.

Egun batean kamioian zihoazela Txapero Txinbik "altoa" eman zien. Oraingoan garraioi batzuk zeramatzen, eta likore eta antzekoengatik inpuestoa ordaindu behar izaten zenez, Txinbik garraioi bat ireki zuen, sudurra muturrera inguratu eta gogotsu usaitu zuen, ea anixa edo zer zen antzemateko. Ia atzera erori zen txapero gizajoa, zorabiatuta. Garraioian zer zegoen?: AGUAFUERTEA!



## CARLIN OFIMARKET

PAPERA ETA BULEGORAKO MATERIALA  
ORDENAGAILU ETA INPRESOREN OSAGARRIAK

**GORA SAN TELMOAK!**

Kale Nagusia 3 Tel./Faxa: 143453



### ALBAITARITZA KLINIKA

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN  
IRAKI GARMENDIA MENDIZABAL  
-ALBAITARIAK-

Basadi, 7 behea  
20750 ZUMAJA  
Tel. 143310

LARRIALDIK  
-24 orduetan  
-Zeure etxean  
-Telef. 900-282828  
Abonatu zbkia: 247790

### BIZKOR FOTOKOPIAK



- Enkoadernaketak
- Plastifikatzeak
- Fax publikoa
- Bulegoko materiala

Basadi 1-I, behea - Tlf: 145120

**OHARRAK**

Martxoaren 21ean, goizaldean Inpernupeko haitzetan "Nemrod" boia, txintxilikaia eta sare poltsa ahaztuta utzi nituen. Norbaitek aurkitu badu, bueltatzea eskertuko nioke (143078, Imanol).

(Mopu!)  
"Txofer! 10 mila peztako, nee jartsia?!"

Txa! Matemat katiu al dek soka eta pioluakin? Scot.

Gari;  
itxaspen udaberrixa.

Mantak, ikusten nauen bakoitzian, boletoa erosiko diala agindu dit. Firma bat.

Txo-txos; Karramarro (buztanakin)

Spiderman, tio bueno.  
Ui lof yu!  
Skalator's fans.

**SALEROSKETAK**

**AGURRAK**

Makuxtu lasai! San Telmotako jungo naiz. Atxur.

Kike, Kike, Kike.  
Nike nahi nike.

Bahuan ordua! Martxoak bederatzian inork pentsatuko ez lukeen gertakizun historikoa Inpernupen: Joxemanuelek kriston erronda patu zian!! 100 firma.

Kamisetak eta antzekoak egiten dira. Lan berezi eta orijinalak. Etorri lasai eta hitz egingo degu. Baltasar Etxabe 7. Tel.: 860569

**Baleikeren atzeratutako zenbakiak FORONDAN eska ditzakezu, 15 eta 16. zenbakiak izan ezik, hauek agortuta baitaude.**

**HILAREN 13AN (LARUNBATA)  
EUSKALDUNON EGUNKARIAK  
SAN TELMOEI BURUZKO GEHIGARRI  
BEREZIA ATERAKO DU.  
ADI EGON!**

*Salmenta puntuak*

- Jesuskoa
- Errota (Erribera)
- Errota (Basadi)
- Errota (J.Belmonte)
- Ogi Berri (Amaia)
- Ogi Berri (Basadi)
- Arkupe okindegia
- Aizpurua liburudenda
- Olanoliburudenda
- Loitz liburudenda
- Alai janaridenda
- Nikol kafetegia
- Inpernupe
- Zalla erretegia
- Foto Gar
- Arroa Behea

**L**ehiaketa Goxoa




Zein dira argazkian ageri diren koadrila horretako partaideen izenak? (duela 11 urteko argazkia da) Bakarren bat asmatzen dezuenen artean **Txapartegi Gozotegia** emandako tarta eder bat zozketatuko degu. Horretarako **apirilaren 19a** baino lehen utzi beharko dezu erantzuna, sobre batean sartuta Foronda, ONCEko kabina, Foto Mertxe, Aizpurua liburudendan edota Txapartegin bertan. Zorte on!



Lehengo hilabeteko argazkiko 3 musikoak **Antxon Elosua, Fernando Balenziaga eta Iñaki Irigoien** ziren.

Jasotako erantzunen artean zozketa egin ondoren **Jesus Mari Ibarguren**ek jaso zuen hojaldrezko tarta goxoa. On egin! eta besteok badakizue, jarraitu idazten!

Ba al dakizu zure argazkiak hemen errebelatzeagatik zer gertatzen den?



Erribera kalea z/g  
Tel. 861705

**ARCO  
IRIS**  
DE KODAK

... Hau dena ematen dizugula.



3 txartel:  
KODAK  
MINI FUN kamara



3 txartel:  
argazki albuma

6 txartel:  
ARCO IRIS  
motxila  
ederra



Eska ezazu beti ere kalitate maximoa. Horretarako zure argazkiak ARCO IRIS denda batean errebelatzea komeni zaizu.

Errebelatu bakoitzeko ARCO IRIS opari txartel bat emango zaizu. Aukeratu duzun opariari dagokion kopurua bildu eta zure ARCO IRIS dendan eska ezazu.

3 txartel:  
30 x 45  
anpliazio  
izugarria



6 txartel:  
KODAK FUN AQUATIC  
uretarako kamara



6 txartel:  
JEMIS QUARTZ erlojua,  
urtebeteko garantiarekin.